

OÑATIKO UDALA*Iragarkia*

Oñatiko Udala, 2007ko irailaren 26an egindako bilkuran Udal Plenoak ahobatez ondorengo akordioa onartu zuen:

Oñatiko Udal aparkalekuetan estazionamendu zerbitzua arautzen duen Ordenantza.

Oñatiko Udal plenoak ahobatez «Oñatiko udal aparkalekuetan estazionamendu zerbitzua arautzen duen Ordenantza» hasiera bateko izaeraz onartzea erabaki du, beraz, toki erregimeneko 49. artikulua araberaz jendeagirian jartzen da 30 eguneko epeaz iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, interesatuek udal bulegoetan azter dezaten dagozkion alegazioak eta iradokizunak ezarri.

Halaber, 30 eguneko epean inolako jazarpen idatzirik jaso ez balitz akordioa behin betiko izaeraz onartuta geratuko litzatekela adieraztea erabaki du udal plenoak.

Oñatiko Udal aparkalekuetan estazionamendu zerbitzua arautzen duen Ordenantza.

1. KAPITULUA**ORDENANTZAREN HELBURUA. APLIKAZIO EREMUA***1. artikulua.*

Ordenantza honen helburua trafikoa antolatu eta hobetzea da, Kiroldegiko eta Kalegoienako udal aparkalekuetan autoak uztea funtzionalki arautuz, haien txandakako-izaera sendotuz eta betebeharrak bermatzeko arauak ezarri.

2. artikulua.

Aparkaleku hauek bidaiarien autoak uzteko dira bakar-bakarrik, gehienez ere 2,00 metroko altuera dutenak.

3. artikulua.

Trafikoa hobetzeko, Oñatiko Udalak beste aparkaleku batzuk eduki ahal izango ditu, jendeak erabil ditzan Alkate-Udalburuak dekretuz ezarritako baldintzetan. Bandoen bidez argitaratuko dira baldintza horiek.

2. KAPITULUA**GAUEKO APARKALEKUAK ARAUTZEN DITUZTEN IZAERA OROKORREKO ARAUAK.***4. artikulua.*

Gaueko aparkalekua 21:00ak eta hurrengo goizeko 9:00ak artekoa izango da, eta hileroko ordainketa-sistema baten bidez arautuko da.

3. KAPITULUA**ESTAZIONATZEKO ORDUTEGIAREN ETA DENBORA MUGATZEKO ARAUAK***5. artikulua.*

Sartzeko ohiko ordutegia, goizeko 7:00etatik 24:00ak artekoa izango da. Irteteko ordua libre.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI*Anuncio*

El Ayuntamiento de Oñati reunido en sesión Plenaria de fecha 26 de setiembre de 2007, adoptó el siguiente acuerdo:

Ordenanza reguladora del servicio de estacionamiento en los aparcamientos Municipales de Oñati.

La corporación en pleno por unanimidad acuerda, aprobar inicialmente la «Ordenanza reguladora del servicio de estacionamiento en los aparcamientos municipales de Oñati», lo que se hace público a los efectos del artículo 49 de la ley de bases de régimen local, abriendo un período de exposición pública de 30 días a partir del siguiente de la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, con la finalidad de que los interesados puedan examinarlo en las dependencias municipales y, en su caso, puedan presentar las reclamaciones y sugerencias que estimen oportunas.

Asimismo, el pleno municipal acuerda que sí en el plazo de 30 días de exposición pública no se presentará alegación alguna, el acuerdo será considerado firme a todos los efectos.

Ordenanza reguladora del servicio de estacionamiento en los aparcamientos Municipales de Oñati.

CAPÍTULO 1**OBJETO DE LA ORDENANZA.
ÁMBITO DE APLICACIÓN***Artículo 1.*

La presente Ordenanza tiene por objeto la ordenación y mejora del tráfico, mediante la regulación funcional de los estacionamientos de vehículos en los aparcamientos municipales del Polideportivo y Kalegoiena, reforzando su carácter rotatorio, y el establecimiento de medidas para garantizar su cumplimiento.

Artículo 2.

Los aparcamientos están destinados exclusivamente al estacionamiento de vehículos automóviles para viajeros, con una altura máxima de 2,00 m.

Artículo 3.

Con el fin de mejorar el tráfico, el Ayuntamiento de Oñati podrá disponer aparcamientos auxiliares para uso público en las condiciones que se establezcan por decreto de la Alcaldía Presidencia, que se publicarán mediante Bandos.

CAPÍTULO 2**NORMAS DE CARÁCTER GENERAL REGULADORAS DE LOS APARCAMIENTOS NOCTURNOS***Artículo 4.*

El aparcamiento nocturno abarcará el tiempo comprendido entre las 21:00 horas y las 9:00 horas del día siguiente, que se regularán por un sistema de abono mensual.

CAPÍTULO 3**NORMAS REGULADORAS DE LOS HORARIOS Y LA LIMITACIÓN DEL TIEMPO DE ESTACIONAMIENTO***Artículo 5.*

El horario de acceso normal a los aparcamientos será de 7:00 a las 24:00 horas. El horario de salida será libre.

Ordutegi hori Alkate-udalburuaren Dekretu bidez aldatu ahal izango da, Bando bidez jakinaraziz.

Gaueko aparkalekuei dagokienez, abonatuak 21:00etik aurrera sartu ahal izango dira, eta hurrengo goizeko 9:00etarako hutsik laga beharko dute plaza.

6. artikulua.

Ordenantza bete egingo dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarri da. Behar diren pertsonak nahiz materialak izango ditu zerbitzu horrek, eta indarrean dagoen kontratu araudian aurrikusitako edozein gestio eraren bidez eman ahal izango du zerbitzu hori.

7. artikulua.

Alkate-udalburuak, Mantenimendu eta Zerbitzuetako Sailak arrazoiz proposatuta, aldi baterako geldiarazi ahal izango du Ordenantza hau aplikatzea, trafiko estuasuna eta estazionalekuen dentsitatea murriztea aurrikusten den aldietan edo egunetan.

Halaber, eta baldintza beretan, deuseztu egin ahal izango da Ordenantza aplikatzea, beti ere behar bezala motibaturik trafikoa eta estazionalekuetan edozein eratan eragiten duten beste kausa batzuk egonez gero.

4. KAPITULUA

ESTAZIONATZEAGATIKO KOBRANTZAREN ARAUAK

8. artikulua.

Estazionatzeagatiko tasak, dagokion Ordenantza Fiskalaren arabera arautuko dira.

Txandakako izaera bermatzeko helburuz, 300 minututik aurrera, estazionamendu tasak igoera izango du, hori ere aipatu Ordenantzan jasoko dena.

9. artikulua.

Aparkalekua doan izango da lehen 30 minututan.

10. artikulua.

Gaueko aparkamendu sisteman, goizeko 9:00etarako aparkalekua utzi ez duten autoek, edo eta gaueko 21:00ak aurretik sartu direnek, gaueko aparkalekuari dagokion ordutegiaz kanpoko denborarengatik ordaindu beharko dute, ohiko tarifaren arabera eta aurreko artikuluan ezarritakoa betez.

5. KAPITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA SANTZIOAK.

11. artikulua.

1) Ordenantza honetako edozein artikuluren arauak hautsiz gero eta Alkate-Udalburuak ordenantza horri buruz emandako erabakiak hautsiz gero, arau haustetzat joko dira trafikoa eta zirkulazio ordenazioko arauak dagokienez, eta horren ondorioz santzioak ezarriko dira, legez ezarritako prozeduraren bidez.

2) Hauek izango dira arau-haustek:

a) Dagokion tasa ordaindu gabe aparkalekutik irtetea.

b) Estazionamendu arrunterako edo gauez estazionatzeko eskubidea ematen duen tiketa eduki gabe aparkatzea.

Dicho horario podrá modificarse mediante decreto de la Alcaldía Presidencia, que se publicará mediante Bando.

En el caso de aparcamiento nocturno los abonados podrán acceder a partir de las 21:00 horas, y deberán desocupar la plaza para las 9:00 horas de la mañana.

Artículo 6.

Al objeto de garantizar el cumplimiento de la Ordenanza se establece un servicio de control dotado de los medios materiales y personales necesarios, pudiendo prestarse por cualquiera de las formas de gestión previstos en la normativa contractual vigente.

Artículo 7.

La Alcaldía Presidencia, a propuesta motivada del Área de Servicios y Mantenimiento, podrá dejar en suspenso la aplicación de la presente Ordenanza durante los períodos o días en que se prevea vaya a disminuir la congestión del tráfico y la densidad de los estacionamientos.

Asimismo, y en las mismas condiciones, podrá suspenderse siempre que existan otras causas debidamente motivadas que incidan de cualquier forma en el tráfico y estacionamientos.

CAPÍTULO 4

NORMAS REGULADORAS DEL COBRO POR ESTACIONAMIENTO

Artículo 8.

El importe de las tasas por estacionamiento se regulará mediante la correspondiente Ordenanza Fiscal.

Con objeto de garantizar el carácter rotatorio, a partir de los 300 minutos de estacionamiento la tasa sufrirá un incremento de cuantía que también se reflejará en la mencionada Ordenanza.

Artículo 9.

El estacionamiento del vehículo durante los primeros 30 minutos será gratuito.

Artículo 10.

En el sistema de aparcamiento nocturno, aquellos vehículos que no abandonen el aparcamiento para las 9:00 horas de la mañana, o accedan al mismo con anterioridad a las 21:00 horas, deberán abonar el tiempo transcurrido fuera del horario de aparcamiento nocturno, con arreglo a la tarifa ordinaria y con aplicación de lo dispuesto en el artículo anterior.

CAPÍTULO 5

INFRACCIONES Y SANCIONES

Artículo 11.

1) La infracción de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las resoluciones en relación con la misma dictadas por la Alcaldía Presidencia, tendrá la consideración de infracción a las normas de ordenación de tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legalmente establecido.

2) Se considerarán infracciones:

a) Abandonar el estacionamiento sin el abono de la tasa correspondiente.

b) Estacionar sin poseer ticket que otorga el derecho al aparcamiento ordinario o al aparcamiento nocturno.

12. artikulua.

11.2 artikuluan tipifikatutako arau hausteak 50 €-ko isunaz santzionatuko dira

13. artikulua.

Ordenantza honetan eta, hala badagokio, atzetiko arauetan xedatutakoa gorabehera, Zirkulazio Kodean eta hari buruzko Araudian ezarritako murrizteak, debekuak eta santzioak ere hartuko dira kontuan.

BUKAERAKO XEDAPENA

Udalak behin-betikoz ordenantza onartu eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN haren testua argitaratu ondoren, eta Toki Araubideko oinarri-arauak arautzen dituen 7/85 Legearen 65.2 atalari buruz 70. artikuluan adierazten den epea igarotakoan sartuko da indarrean Ordenantza hau.

Oñati, 2007ko irailaren 26a.—Alkatea.

(2490)

(11373)

ORDIZIAKO UDALA**Kontuhartzaitza**

Udal honetako agirietan azaltzen diren helbideetan aurkitu ezin izan diren zergadunentzako jakinarazpena.

Honen bidez segidan argitaratzen den zerrendan sartutako zergaduneei Udal honetako agirietan azaltzen diren helbideetan aurkitu ezin izan direnez edota jakinarazpenaren ardura hartzeko legeriak baimena ematen dien pertsonen eskutik jakinerazpenak arrazoi desberdinak alegatu dituztenez, hurrengoak jakinerazten zaie:

Aipatutako zerrendan bakoitzari ezartzen zaion diru kopurua edozein Aurrezki Kutxa edo Banketxetan sartu beharko dutela.

Kutxa (2101 0073 11 0003238318), Euskadiko Kutxa, Bilbao Vizcaya Argentaria banketxea, Guipuzcoano banketxea, La Caixa, Santander Central Hispano banketxea eta Caja Rural.

Gainera, on line era egin dezakezu, helbide honetan: www.ordizia.org

Borondatezko sarrera epea:

Hilabeteko epea jakinarazpena argitaratutako hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Premiamenduzko errekarua:

Borondatezko aldia amaiturik, premiamenduzkoa hasiko da zorrak 15% errekaruarekin kobratzearen.

Errekutsoak:

Likidazio honen aurka, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsua aurkez dezaiogez Udal honi, administrazioarekiko auzi-bideari ekin aurretik, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua administrazioarekiko auzitarako Gipuzkoako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Artículo 12.

Las infracciones tipificadas en el artículo 11.2 serán sancionadas con multa de 50 €.

Artículo 13.

Lo dispuesto en la presente ordenanza y, en su caso, normas consiguientes, se entiende sin perjuicio de las restricciones, prohibiciones y sanciones establecidas en el Código de Circulación y Normativa concordante.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza surtirá efectos una vez aprobada definitivamente por el Ayuntamiento y publicado el texto integro de la misma en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y haya transcurrido el plazo señalado en el artículo 70 en relación con el 65.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril reguladora de las bases de Régimen Local.

Oñati, a 26 de setiembre de 2007.—La Alcaldesa.

(2490)

(11373)

AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA**Intervención**

Notificación a contribuyentes que no han podido ser hallados en los domicilios que figuran en los documentos de este Ayuntamiento.

Por la presente se notifica a los contribuyentes incluidos en la relación que a continuación se inserta y que no han podido ser hallados en los domicilios que figuran en los documentos de este Ayuntamiento o que han alegado distintas causas para recibir las por personas que la legislación autoriza para hacerse cargo de la notificación, lo siguiente:

Que deberán ingresar las cantidades que a cada uno se le consignan en la citada relación, en cualquier Caja de Ahorros o Bancos.

Kutxa (2101 0073 11 0003238318), Caja Laboral, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, Banco Guipuzcoano, La Caixa, Banco Santander Hispano y Caja Rural.

Además lo podrá hacer también on line en esta dirección: www.ordizia.org

Período voluntario de ingreso:

Plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de esta notificación.

Recargo de apremio:

Transcurrido el período voluntario se iniciará el procedimiento de apremio para el cobro de los débitos con el recargo del 15%.

Recursos:

Contra la presente liquidación podrá usted interponer ante este Ayuntamiento, y con carácter potestativo, recurso de reposición previo a la vía contencioso-administrativa en el plazo de un mes a contar desde la notificación de la presente, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Gipuzkoa, en el plazo de dos meses a partir de la notificación de la presente resolución.